

Adineko askok mugitzeko zailtasunak dituzte,adibidez, artikulazio zurrinak, oreka falta eta indar gutxi. Hori guztiari bakardadea eta estresa ere gehitzen zaizkie. Gure enpresak arazo horiei erantzutea da helburu, adinekoei egokitutako ariketa leunak eginez, horrela, mugimendua eta malgutasuna hobetzen dira, oreka eta indarra lantzen dira, eta arnas- eta erlaxazio-ariketek ongizatea ematen diete. Gainera, taldean aritzeak harreman sozialak sendotzen ditu eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

Gure enpresa besteetatik bereizteko eta bezeroak ordaindutako kuota zentzuduna izateko adineko pertsonekin soilik lan egiteaz gain yoga klasearen ondoren hamaiketakoa eskaintzeko prest gaude, haien erlazioa sustatu dadin.